

## 1. XEDEA

Gaztelekuaren ezaugarrietara egokitutako protokoloa zehaztea, Osasun Ministerioak emandako gomendioekin bat etorri, COVID-19aren kutsatzea saihesteko edo harekin kontaktu estua izandakoen agerpenari erantzuteko.

## 2. APLIKAZIO-EREMUA

Protokoloa begirale eta gazte guztiei aplikatuko zaie; eginkizuna edo erantzukizuna edozein dela ere. Kanpotik instalakuntzara sartzen den orori ere aplikatuko zaio.

Egoeraren arabera protokoloa eguneratu egingo da. Udalaren eta Lapazorriren arteko komunikazioa jarraia izan beharko da.

## 3. PREBENTZIO NEURRIAK

### 3.1. PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

Osasun Agintaritzak ezarritako adierazpenekin eta gomendioekin bat, hauek izango dira hartu beharreko neurriak:

Gaztelekuko espazioen eta pertsonen zirkulazioaren antolaketa (ahal den neurrian, segurtasun distantzia uneoro bi metrokoa izango da).

Maskara derrigorrezkoa izango da.

Gaztelekura sartzeko edukiera mugatu egingo da: gehienez 17 pertsona (15 gazte eta 2 begirale), aforoa %60 baino gutxiagokoa izatea une oro bermatuko da.

Sarrerak eta irteerak modu mailakatuan egingo dira. Taldeen arteko sarrera eta irteera orduen artean denbora tarte bat mantenduko da, jende-pilaketak ekiditeko.

Zereginak birbanatzeko edota telelana egiteko aukerak aztertuko dira (beharrezkoa izango balitz, prest egoteko)

Gazteei prebentzio neurriei buruzko informazioa emango zaie eta gaztelekuan kartelak eta seinaleztapenak jarriko dira.

Ura eta xaboa eskuragarri jarriko dira eta papera eskuak lehertzeko. Gel hidroalkolikoa ere eskuragarri jarriko da (hori bukatu bakoitzean, Udalarri instalazioan gehiago jartzeko abisua pasatuko zaio)

Zabor-poltsekin estalitako zaborrontziak jarri beharko dira.

Instalazioa maiz aireztatuko da; ahal izanez gero, leihoak irekiz.

Gazteak sartu aurretik, desinfekzioa egin behar da (mahaiak, aulkiak... ukitu ahal den guztia). Desinfekzio produktuak eskuragarri egongo dira gazte zein begiraleentzat.

### 3.2. PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

#### 3.2.1. Zerbitzura sartu aurretik hartu beharreko neurriak:

Nerabeek Lapatxoko Gaztelekuko zerbitzuan parte hartzeko, aurrez izena ematea eskatuko zaie; horretarako, zenbait datu eman beharko dira (datuen orria 7.2 eranskinean). Modu honetan, gaztelekuan egon direnekin kontaktatzea ahalbidetuko da.



Asteburu bakoitzean, txanda ezberdinak egongo dira adin tarte bakoitzarentzat, eta izena eman beharko da horietako bakoitzean Gaztelekura joateko. Izena eman ahal izateko, ostegunero, taula bat izango dute eskuragarri Google Drive plataforma bidez. Gehienez, 15 pertsonako gazte taldeak sortuko dira.

Gaztea zerbitzura etortzekoa den bakoitzean, aurrez honako baldintza hauek betetzen dituela ziurtatu beharko du:

- Sukarrik (>37.1) ez duela.
- Arnas sintomarik ez duela.
- COVID-19ren sintomak dituen pertsona batekin egon ez dela azken hiru egunetan.
- COVID-19rekin kutsatutako pertsona batekin kontaktu zuzena izan badu, ondorengo 14 egunetan ezingo da Gaztelekura etorri.
- Taldeak 15 kidekoak izango dira gehienez (15 gazte + 2 begirale) eta taldekatzeak adinaren arabera egingo dira, ikastetxeetako talde egonkorrak ahalik eta gutxien aldatzeko.

### 3.2.2. Zerbitzura sartzeko unean hartu beharreko neurriak:

Kide bakoitzari tenperatura hartuko zaio. 37.1etik gora izanez gero, etxera itzuli beharko da (aurrez gurasoek/tutoreak baimena emanda).

Sartzen den oro maskarekin dagoela ziurtatuko da.

Sarreraren eskuak desinfektatuko dira.

Sartzen den kide bakoitzaren izena idatziz jasoko da, baita tenperatura zehatza ere. Era horretara, COVID-19 kasuren bat detektatuz gero, taldea identifikaturik egongo da.

### 3.2.3. Zerbitzuak dirauen bitartean hartuko diren neurriak:

Materiala erabili aurretik eta ostean, eskuak desinfektatuko dira. Taldea denbora luzez geratzen bada, hidrogela pasatuko da; orduro, behin gutxienez.

Maskaren erabilera derrigorrezkoa izango da.

Gazteren bat sintomekin hasiz gero, etxera joan beharko da (aurrez gurasoek/tutoreak baimena emanda)

### 3.2.4. Talde aldaketak egiterakoan hartu beharreko neurriak:

Bi talderen artean 15 minutuko tarte utziko da, begiraleek lokala eta erabilitako materiala desinfektatzeko eta aireztatzeko.

Bigarren taldea sartzen denean, 2. eta 3. puntuak errepikatuko dira.

## 4- JARDUKETA ARAUAK GAIXOTASUNAREN SINTOMAK AGERTUZ GERO

Osasun Publikoak (Osakidetzak) sintomak izan aurreko hiru egunetan gaztelekuan egon denaren positiboa berresten badu, gaztelekua itxi egingo da eta dagokion garbiketa eta desinfekzio lanak egingo dira. Kasu horretan, begiraleen ardura pertsona horiekin kontaktatzea izango da.

Ez da gaztelekura hurbilduko gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona oro. Gazteren batek sintomak edukiz gero, begiraleei eta lehen mailako arretako osasun zentroari jakinaraziko zaie



telefonoz. Positiboa izanez gero, adierazitako kontrol-neurriak hartuko dira kontaktu estuztat hartzen diren pertsona guztiekin.

Sintomak (sukarra, eztula, airearen falta, usaimen falta...) gaztelekuan agertzen badira, berehala jakinaraziko zaio horren guraso / tutore legalari. Sintomak dituen pertsona zuzenean etxera joango da, aurretiaz horretarako gurasoen baimena izanda. Gurasoak arduratuko dira osakidetzari horren berri emateaz. Osakidetzak adierazitako kontrol neurriak jarraituko dira. Prozesuan laguntzen duten pertsonak babes-maskara jartzeko eta esku-higiene egokia zaintzeko ardura hartuko dute.

## **5- PROTOKOLOAREN EZAGUTZA**

Protokoloa eta hartutako neurriak eraginpean dauden pertsona guztiak ezagutu beharko dituzte. Horretarako, bitarteko hauek erabiliko dira:

Guraso / tutore legalaren korreo elektronikora bidaliko da.

Udalaren (<https://www.mutriku.eus/es>) zein gaztelekuaren (<https://txantxangorriaisialditaldea.com/gazte-txoko/>) web orrialdeetan eskuragarri egongo da.

Baimen eta jakinarazpen espezifikotarako erabiliko den dokumentu eredua eranskinetan ikusi ahal da (7.1 eranskina).

## **6- PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA**

Egoera etengabe aldatzen ari dela kontuan hartuz, hartutako neurriak eta hautemandako jokabideak etengabe ebaluatuko dira. Horien jarraipena etengabea izango da. Astero bilerak egingo dira.

Teknikariarekin bilera telematikoak egingo dira: egoeraren balorazioa egiteko, neurriak errespetatzen eta betetzen ari diren jakiteko, horiek egokitu behar badira egokitzeko, sor daitezkeen zalantzak argitzeko...



## 7. ERANSKINAK

7.1 Gaztelekura joateko eta jardueretan parte hatu ahal izateko dokumentua: baldintzak eta prebentzio-neurriak ezagutzeko, onartzeko eta horiekin konprometitzeko dokumentua:

### GURASOAK EDO TUTOREAK

Nik, \_\_\_\_\_ jaunak/andreak, NAN zenbakia \_\_\_\_\_ duenak, bere izenean eta \_\_\_\_\_ interesdunaren (adingabearen) guraso/tutore gisa,

### HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

Jaso eta irakurri dut Lapatxoko Gaztelekuak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa.

Hitzematen dut gaztelekuko begiraleekin lankidetzan jardungo dudala protokoloan ezarritako neurriak, bereziki nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea kontzientziarekin eta sentsibilizatzearekin zerikusia dutenak, betetzeko, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzeko bere erantzukizun indibidualari dagokionez.

COVID-19arekin lotutako egoerak eskatuz gero, nire datu pertsonalak ematea baimentzen dut.

Nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea ez dago osasun-agintariek ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diet aldeztu aurretik begiraleei.

Gaztelekuan dagoen bitartean nire ardurapean dagoen gazteak COVID-19aren sintomak erakusten baditu, etxera bakarrik joateko baimena ematen diot.

Nire ardurapean dagoen gazteak positibo ematen badu, Lapatxoko Gaztelekuko begiraleei horren berri emateko ardura hartzen dut (uneoro martxan izango den lapatxokogaztelekua@gmail.com korreo elektronikoren bitartez)

Nire ardurapean dagoen gazteak COVID-19aren sintomak (sukarra, eztula, airearen falta, usaimen falta...) baditu edo kutsatuta dagoen pertsona batekin egon bada, nahiz eta sintomarik ez agertu, ez da gaztelekura joango. Honen berri korreo elektronikoko bidez emango diet begiraleei, eta beharrezko neurriak hartuko ditu.

Onartzen ditut Lapatxoko Gaztelekuko ekintzetan parte hartzeko ezarritako baldintzak; ondorioz, baimena ematen diot nire ardurapean dagoen seme-alabari edo adingabeari gaztelekura joatea eta bertako ekintzetan parte hartzea.

\_\_\_\_\_n, \_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an izenpetua

Sinadura



## 7.2. Izen emate orria:

GAZTELEKUA 2020/2021

Urtero bezala, aurten ere Lapatxoko Gaztelekua zabalduko da, baina oraingoan, egoerak behartuta, baldintza berezietan.

Informazio orrian zehaztasunez azaltzen den bezala, aurten beharrezkoa izango da izena ematea gaztelekuaz gozatzeko. Orri honetan eskatzen diren datuak bete eta urriaren 2a baino lehen korreo elektronikoz (lapatxokogaztelekua@gmail.com) bidali beharko da.

IZENA: .....

ABIZENAK: .....

JAIOTZE DATA: .....

MOMENTUKO IKASKETAK/LANA: .....

MAILA (IKASKETEN KASUAN): .....

HELBIDE ELEKTRONIKOA: .....

ZURE TELEFONO ZENBAKIA (AUKERAKOA): .....

GURASOEN TELEFONO ZENBAKIA: .....

COVID-19 gaixotasunaren aurrean, osasun agintariak ezarritako arrisku-talderen baten parte al da zara?.....

\*Izen-emateko azken eguna urriaren 2a izango da. Ondoren, norbaitek oraindik izena eman ez badu eta gaztelekura etorri nahiko balu, hilabete bakoitzeko lehenengo asteburuan izango du aukera.

LAPATXOKO GAZTELEKUA

ORRI HAU SINATZEAN, ONARTZEN DUT...

1. Ez naizela gaztelekura joango aurreko astean Coronavirusaren edo beste edozein gaixotasunen sintomak izan baditut.
2. Protokoloan zehaztuta dauden segurtasun neurriak mantenduko ditudala.
3. Sintomak izanez gero, eta gaztelekuan neurriak bermatzen eta mantentzen diren bitartean, horren ardura hartuko dudala kutsatuz gero.

